



# IRABAZI ITURRIAK

Gure helburua ez da etekinak lortzea, behar dutenei eta ingurumenari laguntzea da. Guk aukeratu dugun diru sarrera mota ordainketa bakarrekoa izango da. Enpresek jarritako iragarkien eta tamainaren arabera ordainduko digute.

Bezeroek, berriz, eskatutako janari kantitatearen arabera tabernan, supermerkatuan, kafetegietan eta beste hainbat lekutan (lekuan lekukoa) zuzenean ordainduko dute gure zerbitzua erabiltzeagatik komisiorik ordaindu gabe.

Hala ere, gure aplikazioan iragarkiak bezalako marketina jarriko dugu, honekin diru sarrerak edukiko ditugu eta irabazitako diruarekin gure aplikazioaren erabiltzaileei deskontu desberdinak eskainiko dizkiegu. Pakete hauen prezioa lokal bakoitzak erabakiko du, baina gutxienez %30 eko deskontua egitea eskatuko diegu, horrela mundu guztia hau ordaintzeko gai izango da.